



2018KO EKAINAREN 29KO AGINDUA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, GAZTERIAREN EAEKO LEGEAREN PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEN DUENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du gazteria-politikaren arloan.

Azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), berriz, 8. artikuluan sartzen du gazteriaren arloa Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumeneko eginkizunen eta jardunen artean.

Eskumen hori betetzeko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egokitzat eta zilegitzat jo du Gazteriaren EAeko Legearen proiektua prestatzea; hala, arau hori maila horretako lehena izango da gure autonomia-erkidegoan gazteriaren arloko politika osotasunean jorratzen.

Proiektuak eta hura izapidetzeko prozedurak bat etorri beharko dute Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legean ezarritako bidearekin (8/2003 Legea, abenduaren 22koa).

Zehazki, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 4. artikuluko lehen apartatua xedatzen du “xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien arloan eskumena duen saileko sailburu titularren aginduz” hasiko dela.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak du eskumena, halaxe zehazten baita bai Lehendakariak azaroaren 26an emandako 24/2016 Dekretuan, bai eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuan ere.

Horrenbestez, hauexek izango dira Gazteriaren EAeko Legearen proiektuaren helburuak: batetik, printzipio orokorrak ezartzea EAeko administrazio publikoek gazteriaren arloan egiten dituzten jarduketak gidatzeko, gazteen eta gazte-talde oinarrizko eskubideak eraginkorki betetzen direla bermatze aldera; eta, bestetik, neurriak arautzea gazte izaera sustatzeko, gazteek bizitzaren arlo guztietan eskubide- eta aukera-berdintasuna dutela babesteko eta berdintasun horri bide emateko, eta, bereziki, gazteen autonomian eragiteko eta emantzipazioa sustatzeko, eta, horiekin batera, gazteen parte-hartzea bultzatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen.

Lurralde Historikoen Legeak ezarritako eskumenen konfigurazioarekiko begirunea izango da Gazteriaren EAeko Legearen proiektuaren abiapuntua, lege horrek lurralde historikoei egozten baitie erakunde komunek gazteria-politikaren arloan xedatutako legeak bakoitzaren lurraldean betearaztea, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek arlo horren gaineko ekintza zuzena izan. Era berean, udal-esparruari

dagokionez, aintzat hartu behar da apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 17.36 artikuluan xedatzen baitu udalerrien eskumenak direla gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Araua-ren xedea eta helburua.

Xedea da arau- eta eskumen-esparrua ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan gazteria-politika garatzeko.

Helburua, berriz, gazteei beren eskubideak baliatzeko babes eta bideak ematea da, haien izaera edo baldintzak edozein direla ere, eta gazteen parte-hartzea sustatzea gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, iraunkor eta kulturean, bai eta beharrezko baldintzak sortzea ere, haien autonomia eta emantzipazioa bultzatzeko, haurtzaroan hasitako etengabeko prozesuaren amaiera gisara.

Proposatutako arauketaren edukia.

- EAEko administrazio publikoen eskumenak eta funtzioak zehaztea.
- Gazteria-politika garatzeko tresnak eta neurriak, bai eta gazteria sustatzeko tresnak eta neurriak ere, bereziki gazteentzako sortutako zerbitzu, ekipamendu eta jardueren bitartez.
- Gazteriaren arloko zeharkako politika bultzatzeko tresnak eta neurriak, hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko gazteriaren arloko plan orokorrak, erakunde bakoitzak bere gazteria-politikaren plangintza eta ebaluazioa egitean zehaztuko direnak.
- Gazteen parte-hartzea sustatzeko neurriak, aldi berean Euskadiko Gazteriaren Kontseilua aitortuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko baliozko bitartekaritzat, hala xedatuta baitago maiatzaren 6/1986 Legean, Euskadiko Gaztediaren Kontseiluari buruzkoan.
- Gizarte-ekimena, gazte boluntarioak eta nazioarteko lankidetzaren arautzea, Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak xedatzen duenarekin bat etorriz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriako Sailarteko Batzordea eta Gazteriaren arloko Euskadiko Erakundearteko Koordinazio Organoa sortzea, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen ordez.
- Ikuskapena eta zehapen araubidea.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak gazteria-politikaren arloan eskumen osoa du. Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluan, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei gazteriaren arloko ekintza zuzenak garatzeko eskumena esleitu zitzaizkien, besteak beste.

Era berean, udal-esparruari dagokionez, aintzat hartu behar da apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17.36 artikuluan xedatzen baitu udalerrien eskumenak direla gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Bestalde, azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen), 8. artikuluan, gazteriaren arloa sartzen du Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumeneko eginkizunen eta jardunen artean.

Apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, Gazteria zuzendaritzaren egitekoen artean zerrendatzen ditu, besteak beste, honako hauek: gazteriako politika integralak garatzea, gazteentzako informazioari eta dokumentazioari dagozkion egitekoak, haur eta gazteentzako aterpetxeak eta instalazioak, gazteentzako turismoa eta gazteentzako gainerako zerbitzuak, haur eta gazteen aisialdiko hezkuntzan, dinamizazio soziokulturalean eta haur eta gazteei zerbitzuak emateko zentroetan lan egiten duten pertsonen ezaugarriak zehaztea, eta horien prestakuntza bultzatzea.

Ordenamendu juridikoan dituen ondorioak.

Indargabetu egin da 239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu-erregimen eta osaketari buruzkoa, urriaren 15eko 240/2002 Dekretuak aldatu zuena.

Aplikagarriak izango dira, baldin eta etorkizuneko legean ezarritakoari aurka egiten ez badiote, eta geroagoko xedapenen bidez aldatzen ez diren bitartean, honako arau hauek:

170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duena.

14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Zentro Koordinatzailea sortzen duena.

211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespen ofiziala arautzen duena.

406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.

419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena.

260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko “GazteTxartela/Carnet joven” eratu eta arautzeko dena.

Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailekoa. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte elkarten eta gazteriari zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen zentsua sortzen da.

Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena. Honen bidez urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen da, hau da, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa.

Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi jardueretarako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzekoa.

Agindua, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazteko.

Eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 10.3 artikuluan xedatzen duenarekin bat, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, etorkizuneko araua aplikatzeak dakarren kostua eta EAEko Aurrekontu Orokorretan duen eragina aztertzen dituen. Era berean, memoria horretan jasoko da arauak beste administrazio batzuetan eta ekonomian, oro har, izango duen eraginaren analisi bat ere.

Bidezkoztat jotako izapideak eta txostenak.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarenak, agintzen duenaren arabera, prozedura hasteko aginduak adieraziko ditu zer izapide eta txosten diren bidezkoak dagokion arloan.

Espedientean jaso beharko dira, aipatutako memoria ekonomikoaz gainera, arauaren premiari, aukerari eta xedeei buruzko justifikazio-memoria ere; azken horren barruan sartu beharko dira haurren eta nerabeengan izango duen eraginaren analisisia (hala xedatzen baitu urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoak), bai eta familian izango duen eraginarena ere (hala xedatzen du 40/2003 Legeak, azaroaren 18koak, Familia Ugariak Babesteari buruzkoak).

Halaber, enpresetan duen eraginari buruzko ebaluazioa jaso beharko da memorian, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko Legeak 6. artikuluan ezartzen duena betetze aldera (16/2012 Legea ekainaren 28koa).

Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartutako Erabakiarekin bat (horren bidez onartu ziren xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133. artikuluan xedatzen duena betetzeari dagokionez (Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea), ulertuko da hori jasota dagoela Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasteko fasean, kontuan hartuta herritarrekiko interakzio-izapide bat dela eta fase hori testu juridiko arauemaile bat onartu baino lehen egin behar dela.

Izapide hori betetze aldera, iragarki bat jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko Iragarkien Taulan. Informazio bera argitaratuko da Legegunean ere; gainera, jasotako ekarpenak erantsi beharko zaizkio

hasierako informazioari, banan-banan zein multzoka. Orobat, aurretiazko kontsulta-izapide horretan argitaratutako informazioa Gobernuaren Irekia plataformara eramango da, herritarrek Administrazioaren jarduketan berri izateko eta iritzia emateko aukera izan dezaten.

Legearen aurreproiektuari aurretiazko onarpena eman ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, hala xedatzen baitu ekainaren 30eko 7/1982 Legeak, Gobernuari buruzkoak, 56.1 artikuluan, —7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 7/2016 Legearen idazketan—.

Aurretiazko onarpenaren agindua eta dagokion lege-proiektua Legesarea lankidetzagunean argitaratuko dira (2010eko abenduaren 28ko Agindua, 1.2 atala).

Aurreproiektua jendaurrean jarriko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, testuak beste administrazio batzuen parte-hartze eta kontsultarako izapidea igaro beharko du, abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 9. artikulua hala agintzen baitu.

Txosten hauek ondu beharko dira:

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoa, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko Dekretuaren 42.1 artikuluan ezarritakoaren arabera (144/2017 Legea, apirilaren 25ekoa).
- Generoaren arabera izango duen eragina ebaluatzeko txostena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak abuztuaren 21ean emandako 40/2012 Ebazpenak (horren bitartez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa, argitara dadila xedatzen da) lehenengo jarraibidearen 2.1) atalean ezarritakoaren arabera.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, arauak generoaren arabera izango duen eraginari buruzkoa, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikako sailburuordetzaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 14.2.1) artikuluan xedatzen duenarekin bat; bai eta azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak, bere 3. artikuluan arautzen duen moduan ere.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Funtzio Publikoko sailburuordetzaren Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, aintzat hartuta zer xedatzen duen duten, batetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 6.1.a) artikuluan; eta, bestetik, apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuak, aipatutako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 17. artikuluan.

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena, apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuak, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 11.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

- Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak, 27.a) artikuluko 1. paragrafoan aitortzen zaizkion funtzioak baliatuz.

- Aurreproiektua Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari ere aurkeztuko zaio; izan ere, erakunde horren funtzioen artean dago, besteak beste, “Gazteriaren arazoei eta interesei zuzenean lotutako ezein xedapen ontzat eman baino lehen bere iritzia ematea” (maiatzaren 27ko 6/1986 Legea, Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa, 2.c artikulua).

- Bidezkotzat jotzen da, orobat, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari txostena eskatzea, aintzat hartuta zer eskumen esleitzen zaizkion otsailaren 25eko 2/2004 Legean, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoan.

- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat (2/2016 Legea, apirilaren 7koa).

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, batzordeari berari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Arauen kontrol ekonomikoaren txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emana arau hauetan ezarritakoaren arabera: urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko testu bategineko III. tituluko IV. kapitulua, eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko Legearen (9/2004, azaroaren 24koa) 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esparru horretan eta Jaurlaritzaren Legearen 56.2 artikulua betez –Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketaren arabera–: *Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten.*

Europar Batasunean egin beharreko izapideak.

Europar Batasunaren aurrean ez da inolako izapiderik egiteko beharra ikusten.

Idazketa-sistema.

Aurreproiektu hau idazteko, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakiari men egingo zaio, haren bidez onartu baitziren lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak.

Itzultzaileen Zerbitzu Ofiziala izango da goiko hori betetzeko erabiliko den sistema, bai eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko ere, hala xedatzen baitu apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duenak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Gazteriaren Euskal Legearen proiektua egiteko prozedura hastea.

Bigarrena: Gazteria Zuzendaritza izendatzea prozedura hori izapidetzeko organoa izateko.

Hirugarrena: Agindu honen berri ematea Legesarea lankidetzeta-gunean, hala xedatuta baitago Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian.

Laugarrena: Egin beharreko azterlan, txosten eta kontsultak egitea, araua egiteko eta asmatuko dugula eta legezkoa izango dela bermatzeko.

Bosgarrena: Xedapen orokorrak izapidetzeko eredia eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin bat etorriz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, izaera orokorreko xedapenen izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jarraibideak onartzen dituena.

Seigarrena: Prozeduran sortuko den garrantzizko informazio juridikoa argitara ematea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 29a.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ